

ZARAUTZ / Haurren idazteko moduari buruzko liburua aurkeztuko dute

Ekitaldia Sanz Enea liburutegian izango da, 19:00etan; liburuan Zarauzko haurren hainbat testu jaso dute

A. Mutiozabal

Haurren idazteko eta ikasteko moduaren hainbat alderdi aztertezn dituen Zer dira idazkera, ortografia eta puntuazioa haurrentzat? liburua aurkeztuko dute bihar arratsaldean, 19:00etatik aurrera, Sanz Enea liburutegian. Bere egilea EHUKo Hezkuntza Zientzietako fakultateko irakasle eta hizkuntza idatzian aditu Irune Ibarra da, eta bere lanak txikienek nola pentsatzen duten ulertzeko balio du.

Euskarri elektronikoan

Zer dira idazkera, ortografia eta puntuazioa haurrentzat? liburua euskarri elektronikoan soilik argitaratu dute. Bertan, gainera, Zarauzko hainbat hurrek idatzitako testuak eta egindako ilustrazioak aurki daitezke. Oro har, gurasoei edota hezitzaileei zuzendutako tresna bat da. Izan ere, txikienek idazten ikasteko prozesuan hartzen dituzten hainbat jarrera aztertzen ditu liburuak. Jarrera horiek ikuspegi psikogenetikotik, psikolinguistikotik eta kognitibotik aztertuta daude, eta hurrek pentsatzeko duten moduari buruzko ikuskera ematen du.